

# Galtzaund



**Eskualdea:** Alkizarren beharrak asetzeko proiektuak >>> Amaroitz Auzo Elkartea ezagutuz

**Kultura:** Ibarrako Kirol Elkartek badu bere liburua >>> Uzturpe Ikastolaren kultur astea

>>> Peachy Joke taldearen lehen diskoa kalean **Kirol saltsa:** Tolosa Judo klubari buruzko erreportaia

**ELKARRIZKETA:** Pako Larrañaga: "Ea 2009an etortzen den".



*Udal artxiboa  
arakatzen*



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)

**vegas**

**POLIURETANOZKO LEIHOAK**




## ARGITUASESORES

P. SAN FRANTZISKO, 5 - 1. / 20400 TOLOSA (GIPUZKOA)  
T 943 654 727 / F 943 650 288 / argitu@argitu.es



## aldama\_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
[gtolesa@aldamatapia.com](mailto:gtolesa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)



# MULTIOPTICAS

## 1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

**betaurreko graduatuak 77€**  
kristalak barne

**100 modelotik gora**

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

Eskaintza honen balioa 09/01/07tik 09/02/28ra artekoa da, marka hauetako armazoi aukeratu batzuentzat: Fashion, Giulio Tabacchi, Cool, Cool+, Bonardi, Mis Lupos eta Fashion Kids Beslay 1.5 lente organiko gogortuak; zilindroa, +2; esfera, +2tik -4ra. Ezin da metatu beste promozioetara.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 <b>ARRASATE</b>	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 <b>BERGARA</b>	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 <b>DONOSTIA</b>	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 <b>EIBAR</b>	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 <b>ERRENERIA</b>	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 <b>IRUN</b>	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 <b>ORDIZIA</b>	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 <b>TOLOSA</b>
--	---	--	---	---	--	--	---



**Argitaratzailea:** Galtzaundi Euskara Taldea.

**Helbidea:** Nafarroa etorbidea,  
6-behea.  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

**Telefonoa:** 943 655 004

**Faxa:** 943 654 983

**e-posta:** galtzaundi@galtzaundi.com

**Webgunea:** www.galtzaundi.com

**Koordinazioa:** Leire Zubeldia.

**Erredakzio taldea:** Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,  
Amaia Goikoetxea Azpeltia.

**Kolaboratzaileak:** Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

**Publizitatea:** Angela Alamo.

**Banatzaileak:** Oihana Sanchez,  
Juankar Arregi.

**Idazkaria:** Edurne Mendia.

**Maketzaia:** Zigor Agirrezabala

**Diseinua:** Jon Ander Ubeda eta  
Maddi Truxuelo.

**Azala:** Galtzaundi

**Inprimategia:** Antza.

**Tirada:** 5.000 ale.

**Lege gordailua:** SS-906/91.

**Frankeo Itundua:** 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta inzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaleren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

**IRITZIAREN LEIHOA**

- Agiñalde Kultur Elkarte: Iruña-Veleia, iruzurra edo historiako hutsune bat?
- Antton Izagirre: Aurrekontu atzerakoiak

**NORMALIZAZIO ATALA**

- UEMA, Galtzaundi eta Kontseilua elkarlanean



4-5. orrialdeak

6. orrialdea

**ESKUALDEKO ALBISTEAK**

- Alkiza: Araztegia, eskola handitzeko lanak eta zentro soziala.
- Amarotz Auzo Elkarte: ezagutuz.

10-13 orrialdeak

**Galtzaundi 294**  
2009ko urtarrilaren 23a

Iritziaren leihoa: Agiñalde K.E. eta Antton Izagirre .....4-5

Eskualdeko albisteak:

Alkizan hainbat proiektu martxan .....10-11

Amarotz Auzo elkarte ezagutzen .....12-13


Kultura:

Ibarrako Kirol Elkarteak badu bere liburua .....18

Uzturpe Ikastolaren kultur astea .....19

Kirol saltza:

Tolosako Judo Klub taldeari buruzko erreportaia .....22-23



**ERREPORTAIA**  
Tolosako Udal Artxiboa arakatzen

7-8. orrialdeak



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena

**ELKARRIZKETA**

*“Espainian ez dago heriotz-zigorrik, ezta biziarteko kartzela-zigorrik ere. Gainera hamaika urte daramatza kartzelan, eta hemen beti esan digute Pakoren auzia oso garbi dagoela. Noski, ez digute agindu Espainiara iristen denean aske utziko dutenik, ez baitute hori egiterik; hitzarmenak ez du bide hori urratzen, esaten duena da presoak kondenatu duen herrialdeak esaten duenarekin bat etorri egon beharko duela kondena beteko duen herrialdean*

- Pako Larrañaga

15-17. orrialdea

## IRUÑA-VELEIA, IRUZURRA EDO HISTORIAKO HUTSUNE BAT?

### AGIÑALDE KULTUR ELKARTEA

**H**arrituta, txundituta, izututa eta haserre bizi dugu Eliseo Gil eta Iruña-Veleiako bere arkeologo taldeari buruz hedabideek hartu duten jarrera. Ezin dugu ideia bat saihestu: Zein erraza den boteretik pertsona bat suntsitzea! Ezarritako Egia zalantzan jartzen duenari atek ixtea zein merkea den ikusteak, haserre bizi jartzen gaitu. Etsigarria da ikustea analista, espezialista eta kazetarien izpiritu kritikoa zertan geratzen den: ke hutsa! Katedradun eta aditu ofizialen iritziak, zalantzan jarri gabe barneratu eta eurenak balira moduan plazaratzen dituzte. Ondorioz, iritzi publikoak tesi horiek barneratzen ditu eta denok galtzen dugu gizarteak aurrera egiteko aukera, garatzekoa.

Demokraziak, benetakoak, atzera egiten du, Ezarritako Egiaren eta aditu ofizialen interesen aldarean sakrifikatua. Inork ez ditzala nire pribilegioak ukitu!! Iraintzeko eta profesional talde baten irudia lohitzeko ez dute ezer frogatu beharrik! Aditu ofizial horiek ez dakite aurkikuntza bat nola enkajatu ikasgeletan azaltzen dituzten eskematan. Eta euren ezgaitasuna ezkututzen dute mezulariari errua botatz, zalantza izpia agertzen duenari.

Zientziaren ibilbide korapilatsu guztian zehar maiz pasa da, pasatzen ari da, eta ikusten ari gara.

Ba al zenekien Kantabriako Altamira koba paleolitikoan aurkitutako labar-pinturen aurkitzailea, Santuola jauna, iruzurgile moduan hartu zela eta 50 urte itxaron behar izan zirela labar-pinturen egiazkotasuna aitortzeko? Historiarreko beste koba bat aurkitua izan arte itxaron behar izan zuen, oraingoan lurralde frantsesean.

Ba al zenekien Atapuercako arkeologo taldeak Sapiens-aren afrikar jatorriaren teoria baztertu duela eta nazioarteko zientzia komunitatearen aurrean jatorri euroasiatikoa babesteko konprometua hartua duela? (2007ko azaroan, Burgosko Paleoeologia Kongresuan). Sapiens-aren afrikar jatorria zalantzan jartzen dute, duela gutxi arte eztabaida zina zena.

Aurrekari hauek kontuan izanik, bidezkoa da galdera batzuk bururatzea: Nork dauka galtzeko gehiago aurkikuntzak egiazkotzat jotzen badira? Edo beste modua batean esanda, nork dauka irabazteko gehiago iruzurtzat hartzen badira? Zergatik Henrike Knörr euskaltzaina eta Euskal Filologia katedradunak, aurkitutako

piezen baliozkotasuna baieztatzen zuen, behin eta berriz? Zergatik adierazten du Lacker jauna, protoeuskararen oinarriak berrikusteko beharra dagoela? Aurkikuntzen iruzurra adierazteko elkarrizketa batean plazaratu zuen adierazpen hau Lacker jauna, Gorrochategui jaunarekin batera. Zer aldatu da orain, oinarri horiek berrikusteko? Agian, Iruña-Veleian ikusi duen zerbaitek eragin du behar hori?

Gai hauekiko orokorrean dagoen ezagutza falta kontuan izanik, ez ote gara gehiegizko onarpen bat ematen ari mugarik gabeko jakintza aitortzen diogun katedradunen esku uztean? Historia enigmaz, misterioz bete dago. Zergatik ez da horrela hartu Iruña-Veleian aurkitutakoa, arkeologo batzuen izena zikindu beharrean? Euskal herriaren eta bere hizkuntzaren jatorria ezezagunak izaten jarraitzen duten bitartean, ez al luke misterio honek lehenetsia hartu behar? Hobe al da 50 urte itxarotea, hain ezjakina den gure mundu honetatik urrun, beste aurkikuntza batek ezarritakoa dardarka jarri dezan? Hobe al da protoeuskararen oinarri berriek aurkikuntza hauek enkajatzeko ahalbidetu dezaten itxarotea? Iruña-Veleia

*“Historia enigmaz bete dago. Zergatik ez da horrela hartu Iruña-Veleiako arkeologo batzuen izena zikindu beharrean?”*

eta Atapuercak Aurrehistoria eta Antzinako Historiaren interpretazio desberdin bati atek irekitzea suposa lezakete, baina hori gure aditu ofizialei eserleku mugitzea bezala izango litzateke. Euren karguak, euren pribilegioak, arriskuan egongo liriateke! Nahiago dute “Descartes” hitza azpimarratu, nahiz eta arkeologoen zeinu horien beste irakurketa bat egitea proposatu duten. Nahiago dute gu kolaz, “iruzurraren” gorenko frogaz, hitz egiten aritzea, profesional batzuen lana karikatura batekin parekatuz. Etsigarria da, irratiko berriketaldietan, hedabideetako analistek “Descartes” eta kola azpimarratzen jarraitzen dutela, entzuleak benetan Veleian dagoenaren ezagutzatik aldentuz. Bi urte behar izan dituzte begibistakoak diren ondorioetara iristeko. Inork ez al du fede txarrik sumatzen guzti horretan? Gizakiok ez genuke inoiz zalantzaren onura alde batetara utzi behar, ezta eztabaida zintzoa ere. Ezta Ezarritako Ezagutzaren zaindarien, Ofiziala denaren mugak zeharkatzen dituztenen aurka erasotzen duteneare. ■



kutxa

### SANTA LUZIA GARAGEA



Grua zerbitzua 24 orduetan

943 653 491 943 653 874  
943 653 985 943 806 020  
Santa Luzia, 1 TOLOSA



## AURREKONTU ATZERAKOIAK

### ANTTON IZAGIRRE

Irakaslea

**U**dal baten urteko jardueraren erabakirik nagusia, udal aurrekontuen onarpena omen da. Herri baten aurrekontu ekonomikoak herri horren osasun ekonomikoaren irudi izan ohi omen dira baina ez da beti horrela. Gehienetan, aurrekontu ekonomikoak agintean dagoenaren pentsaera eta ideologiaren ezaugarriak ematen ditu ezagutzera.

Tolosako Udalak onartu berri ditu 2009rako aurrekontuak eta ongi aztertu eta gero, inongo zalantzarik gabe esan genezake onartu berri dituzten aurrekontuak atzerakoiak eta herri interesen aurka eginikoak izan direla. Hona hemen portaera hori argi erakusten duten erabaki batzuk:

a) Krisi ekonomikoa aitzakiatzat hartu eta gezur handi bat eraiki dute. "Krisia" izaera soziala duen gastua gutxitzeko erabili dute. Krisi garaio-tan gastua murriztu behar dela esan eta non sartu guraizeak eta ... Kultur ikuskizunetarako, kultur diru laguntzetan hezkuntza arloan, euskara zerbitzuan, prebentzio

arloan, etxez-etxeke laguntzako dirutan, INE-Men bidez lanpostuak sortzeko diru partidan, ... murrizketa esanguratsuak ezarri dituzte.

b) Aldiz, herritarroei zergak igotzerakoan ahaztu egin zaie krisia dagoenik eta urteko batz besteko KPIa % 1.5ekoa izan baldin bada ere, herritarroei orohar zergak %4.9an igo dizkigute, zabor-bilketaren kasuan berri %20an. Nola esplik liteke maila honetako igoera, herritarrei iruzur egiteko asmoz ez baldin bada?

c) Krisia zela eta, politikoek soldadak ez zirela igoko esana ziguten baina errealitatea beste bat da. Goi kargu liberatuen diru partida %3.4ean gizendu dute urte honetarako. Lehendik ere ongi puztuak zituzten soldatei, krisiaren galerak eragin ez dabilen.

d) Funtzionarioen soldadak ordaintzeko gastuen atala, neurrik gabe puztu dute, %6ko igoera aurreikusiz, benetako

igoera %2.5ekoa izango denean.

e) Gastu arrunta kontrolatu egin behar dela diote baina Hirigintza Sailean pertsonal laboral eta ez finko gehiago kontratatzen jarraitu dute. Kanpoko zerbitzuak azpikontratatu jarraitzen dute, zergatik eta, agintarien interesen aldeko informetako teknikoak egiten ez dituzten bertako langileak baztertu eta alboratze-ko.

f) Foru Aldundiaren diru funtsetik Tolosako Udalari egin beharreko ekarpena asko murriztu da eta horrek arriskuan jartzen du udalen orain arteko funtzionamendua eta jardura maila.

Gipuzkoako Aldundiaren aurrean Tolosako Udaleko ordezkari politikoak mutu geratu dira, ez dute behatz bat bera ere mugitu bidegabekeria honen aurrean. Alderantziz, Tolosako Alkatea aldi berean EUDELeke buru izanik ontzat eman du murrizketa. Aldundiak zergen bidez gutxiago jaso dutela argudiatuaz, udalak Aldundiaren erabakia zintzo

*"PNVk Enpresariei Elkartearen Zerga tipoa jaistearen ondorio izan dela ezkutatuta nahi dute. Ondorioa garbia da: Udalei orokorrean eta zehazki Tolosako Udalari murrizketa ekonomiko handiak ezarriko zaizkio".*

betetzera deitu ditu. Jarrera honen bidez, zerga gutxiago jasotzea, PNVk Enpresariei Elkartearen Zerga tipoa jaistearen ondorio izan dela ezkutatuta nahi dute. Ondorioa garbia da: Udalei orokorrean eta zehazki Tolosako Udalari murrizketa ekonomiko handiak ezarriko zaizkio.

Honek guztiak garbi erakusten du PNVren politikaren funtsa: gehien duenari zergak gutxitu baina herritarren zergak igo eta igo.

Udalek finantziario justua, duina eta nahikoa behar dute, eta hori exijitu behar diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari. Udalen autonomia eta eragiteko esparrua babestu eta krisiaren aurrean eragile aktiboagoa bilakatu behar dira udalak. Horretarako finantziarioa eredu berria behar dute udalek eta hori da exijitzen duguna, finantziario justua eta nahikoa. ■

**Martin Eceizabarrena**

Instalazio erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

**SANTAMARIA**

*Ortopedia*

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

**SHANTI**

**kirolak**

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

# UEMAk, Galtzaundik eta Kontseiluak elkarlanean egingo dituzte hainbat ekimen 2009an

URTARRILAREN 15EAN TOLOSAKO KULTUR ETXEAN EGINDAKO PRENTSAURREKOAN AZALDU ZIREN 2009KO EGITASMOAK

Erredakzio Batzardea

Elkarlana 2005eko uztailean hasi zen, eta hainbat emaitza eman ditu: Bai Euskarari Ziurtagiriaren gizarteratzea UEMAko herrietako, elkarte gastronomikoetan Euskara sustatzeko kanpaina, Euskaraz Bai kultur astea, Anoeta eta Irurako enpresek euskararen aldeko konpromisoak hartzeko egindako kanpaina, euskaltegiatako matrikulazio kanpainetako ekintza bateratuak...

2009an elkarlana indartu eta hainbat ekintza egingo dituzte, hiru ildo nagusi izango dituztelarik:

## 1.- Etxeetako buzoietan jasotzen den propaganda komertzialaren hizkuntz neurketa

Eskualdeko udalerrri handietan, etxeetan jasotzen den propagandan euskararen erabilera zenbatekoa den neurtuko da. Propaganda komertzialean Euskara baztertzen duten enpresen aurkako salaketa kanpaina indartzuz.

Dagoeneko herritarren sarea osatuta dago, baina Tolosaldeko herritarrei dei egiten zaie gaztelania hutsezko propaganda komertziala helarazi eta salaketa jartzeko. Horretarako, UEMA herrietako udaletxe-

**UEMA, Galtzaundi Euskara Taldea eta Kontseiluak hainbat ekimen jarriko dituzte abian 2009an, erakundeen arteko elkarlanean jauzi kualitatiboa egingez.**



tara edo Galtzaundiko egoitzara gerturatu besterik ez da egin behar.

## 2.- Hizkuntz eskubideak

Tolosaldean euskaldunok jasaten ditugun hizkuntz eskubideen urraketak salatzeko, buzoiak jarri dira hainbat tokitan. UEMAko herrietan abian jarritako kanpai-

na, Tolosaldeako beste herri batzuetara hedatzeko asmoa dago. Aurreneko pausoa, Tolosa eta Ibarako Kultur etxeetan buzoia bana jartzea izango delarik.

## 3.- Merkataritza

Eskualdeko UEMAko herri guztietako merkataritza establezimendu guztiak

## Bai Euskarari Zozketaren ordezkari zorbakiak

Dagoeneko hilabete pasa da Bai Euskarari Ziurtagiri zozketaren zorbakiak atera zirela. Hasieran adostu bezala ordezkari zorbakiak atera ditugu.

1. Saria: Bidaide bidai agentzian, gau bat bi lagunentzako landaturismoko etxe batean. **10. 743**

2. Saria: Mahala esnekiak produktuen, urdai-azpiko paleta bat eta gazta bat. **13. 526**

3. Saria: Aralar Kirolak dendan forro polar bat. **536**


Urtarrileko hilabetean saridunak aterako ez balira, sariak Galtzaundiko bazkideen artean zozketatuko lirateke

bisitatuko dira, UEMAren doako material eskaintza bideratzeko, Bai Euskarari Ziurtagiria eskaintzeko eta erakundeak laguntza emateko prest daudela adierazteko. ■

**ALDATZ**  
**Kristaldegia**

Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispi luak  
Beirate artistikoak  
Dubxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



**BENTA**  
**ALDEA**

JATETXEA

Tel.: 943 654 079  
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

**ELUSTONDO**  
**ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

Turre, 4 (Mustad) 943 672 300  
Amaroz, 21. 943 675 513  
20400 TOLOSA



# Tolosako Udal Artxiboa, herriaren izana apalategietan

1256TIK GAUR ARTE, TOLOSAKO UDALAK SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA GORDETZEN DA UDAL ARTXIBOAN

Leire Zubeldia

**T**olosaren iragana bidaia izan da aukera izan du Galtzaundik. Bidaia horretan luxuzko bidelaguna izan du gainera: Guadi Larrarte Tolosako Udal Artxiboko artxibozaina. Berak zabaldu dizkio Galtzaundiri artxiboko atea. Edonori oiloipurdia jartzeko moduko lekua da: bi, lau, sei eta zazpi mendez iraun duten agirik misterio kutsu bat ematen diete bertako pasabideei. Bere lantokia den arren, Guadirentzat ere artxiboak ez du berezko xarma galdu. Maki-

**Tolosa, noiztik; nondik; eta nola? galderen erantzunak, Aranburu Jauregiko ganbaran aurkituko ditu herritarrak. Bertan dago, 1256an, Alfontso X. Jakitunak Tolosa herri-bildu izendatu zuenetik gaur arteko dokumentazioa gordetzeaz arduratu den Tolosako Udal Artxiboa. Herriaren iragana eta oraina gordetzea: hori da artxiboaren helburu nagusia; baina ez bakarria. Gordetakoa herritarrei erakutsi eta ezagutaraztea ere euren xedeen artean dago. Horren adibide da, okupazio frantsesaren garaiko pasarteak azaltzeko helburuz argitaratu duten Bayoneta aldizkaria.**

na bat aldiz esku artean ibili dituen eskuizkribuak miresten handiz erakusten ditu. “Gu desagertuko gara, baina paper hauek hemen jarraituko dute”, esan, eta hurrengo pasabidera arte jarraitu du.

## TOLOSAKO UDAL ARTXIBOA HISTORIAN ZEHAR

1256. urtean, Alfontso X Jakintsuak herri-bildu titulua ematean sortu zen Tolosa hiri bezela. Orduan hasi zen herria bere funtsa gordetzen.

Urte hartako dokumenturik ez dago ordea udal artxiboa. “Tolosaren lehenengo dokumentua, 1256ko hiri-gutuna izan zen. Zoritxarrez dokumentu hori galdua dago”, azaldu du artxibozainak. Aranburu Jauregian gorderik dagoen dokumenturik zaharrena, 1282. urtekoa da; hiri-gutun horren berrespena hain zuzen ere. “Maila horretako erabaki bat hartzen zuen erregea hiltzen zenean, jartzen zen errege berriari erabaki hori berresteko eskatzen zitzaion. Berrespen hori azaltzen duen dokumentua dugu guk”.

(hurrengo orrian jarraitzen du)

**(aurreko orritik dator)**

Tolosaren sorrerak ekarri zuen beraz Tolosako udalaren jaiotza. Udala bai, baina

rioak gainbegiratzuz gero, hutsuneak ikus daitezke. Hortik ondoriozta dezakegu informazioa galdu zela". Sute eta uholdeez gain, beste bide



udaletxerik ez zegoen ordea. Orduan non gordetzen ziren aipatutako agiri garrantzitsu horiek? "Garai haietako artxiboa kutxa bat zen. Kutxa horrek hiru giltza izaten zituen. Udaleko hiru kideri giltza bana ematen zitzaion. Era honetan, soilik hiruen adostasunarekin ireki zitekeen kutxa. Honek frogatzen du, zer nolako garrantzia ematen zieten agiri horiei". Artxibo funtzioak betetzen zituen kutxa hori non gordetzen zuten ezin da jakin. Baina udaletxea sortu zenetik Tolosako Udal Artxiboa bertan egon izan da: Plaza Zaharrean lehenik, Gorosabel eraikinean gero, eta azkenik, 1996an jarri zuten udal artxiboa gaur egungo lekuan, Aranburu Jauregian.

Denbora guzti horretan, Tolosako udaleko funtsak hainbat ezbehar izan ditu: 1501. urtean eta 1781ean gertatutako suteek dokumentazioa suntsitu zuten. "Ez dakigu zehazki zenbat eta zein dokumentu galdu ziren ezbehar hauetan. Baina, mendeetan zehar egin diren inbenta-

batzuetatik ere galdu izan da informazioa. Horregatik, udal artxiboan ez dute Tolosaren hiri-gutuna aurkitzeko esperantza galdu. "Guk oso ondo ezagutzen dugu gure artxiboa, eta badakigu, 1256ko agiri hori ez dagoela hemen. Baina Estatuko artxibo handi horietan jendeak izugarritzko altxorrak aurkitu ditu. Inoiz ezin da jakin 2.000 folioko auzi batean zer aurkitu dezakezun".

**EDUKIA: 1256TIK 2009RA**

Aranburu Jauregiko ganbaran gordetzen den fondotan, Tolosako Udalak bere sorreratik gestionatu dituen dokumentu guztiak jasotzen dira; bai iraganekoak eta baita gaur egungoak ere. "Artxibo bizia da hau. Dokumentuak hartzen jarraitzen du". Fondoa bakarra izanik ere, biatal dauzka: historikoa, 1936ra arteko dokumentuak hartzen dituena, eta hortik gaur arteko.

Artxibo historikoan sail ezberdinetan sailkatzen dira

dokumentuak: "A" sailean, udal administrazioko agiriak gordetzen dira; "B" sailean, kultura arlokoak; "C"-n, dirukontuak; "D"-n, herri lanen gaineko dokumentazioa; azkenik, "E" sekzioan beste erakundeekin izandako harremanetatik (diputazioa, eliza, agintari militarrik, justizia...) sortutako agiriak daude. Sailkapen hau ez da gaur egungo dokumentazioa sailkatzeko baliogarria. Beste sistema bat erabiltzen da horretarako.

Eduki aldetik, Tolosako Udal Artxiboa XIX. mendeko dokumentazioan bereziki aberatsa da. "Aurreko mendeetako agiriak ere baditugu, baina XIX. mendeko dokumentazioak bolumen handia du". Artxibategi guztiek izaten dituzte euren harribitxiak, baita Tolosako Udal Artxibok ere. "Altxorrak ez dira nahitaez zaharrenak", dio Guadik. "Artxibo baten ikuspegitik, altxorrak, eduki aldetik informazio asko edo esanguratsua



ematen dutenak dira". Era horretan, Tolosako Udal Artxiboan, gariaren prezioari buruzko serie bikaina dute, Tolosako merkatuan egun bakoitzean garia eta beste zerealen prezioa zehazten duena. Harribitxiak izan daitezke baita ere, estetikoki politak diren dokumentuak. "Nik beti erakusten ditut pergaminoak, oso politak baitira, orain dela hainbes-

te denbora esku batek idatziak, eta hortxe, isil-isil, gaur egun arte. Bestalde, berunezko ziguilu bat ere badugu".

Hizkuntzari dagokionez, gazteleraz idatzirik daude artxiboan gordetako ia dokumentu guztiak. "Euskaraz bertso - paperen bat daukagu, eta gauza solteren bat. Gero, udal txeko aktetan euskararen aipamenak ere egiten dira: adibidez, XX. mende hasieran zenbait lanpostutarako euskara baloratzen hasi zirela frogatzen duten agiriak daude. Baina horretaz gain, ezer gutxi dago: euskara ez zen hizkuntza- idatzia".

XVII. mendera arte, bailarako herriak Tolosaren menpe egon zirela kontutan hartuta, herri hauetako dokumentaziorik ba ote dagoen galdetu dio Galtzaundik Larrarteri. "Herri hauetako dokumentaziorik ez daukagu. Datuak bai eta aipamenak ere bai, baina ez bertako dokumenturik". Izan ere, bailarako herriak Tolosaren menpe zeuden, baina zenbait aloretarako bakarrik. Besteak beste, administrazio ekonomikoa herriek beraiek eramaten zuten aurrera. "Herrietan etxe edo baserri bakoitzak zeukan, beraien arteko erabakiak hartzerakoan, botoa emateko eskubidea.

Suposatzen denez erabaki hauek idatziz jasotzen zituzten eta herriko etxeetan gorde, ez udal, ez udaletxerik ez bait zeukaten oraindik. Beste eskualderen batean aurkitu izan dituzte akta liburu horiek, baina gure kasuan ez dakigu agiri horiek egin zituzten, gorde ziren edo zer gertatu zen. Ikerketarako gai polita izango litzateke hau". Aurkituz gero, beste harribitxi bat.



## UDAL ARTXIBOEN ERRONKA

Atzo, gaurko gordetzen zuten artxiboan. Gaur, bihar-ko lan bera egiten ari da Guadi: "Artxiboaren atean dokumentuak noiz iritsiko zain baino, gaur egungo joera, zenbat eta gehiago, Udaleko bulego guztiekin harremanetan egotea da; azken finean artxiboa prozesu oso baten bukaera besterik ez da, dokumentua sortzetik artxibatzeraino". Lan hau erabat aldatuko da etorkizunean. Arrazoia sinplea da: orain arte, artxiboetan esku artean ibili dituzten dokumentuek pape- ra zuten euskarri. Papera ordea medio elektronikoek ordezkatu dute pixkanaka. "Udalek gero eta gauza gehiago egiten dituzte ordenadoren. Espedienteak haien bidez egiten badira, nola gorde behar dugu hori? Hemen- dik 50 urtera, norbaitek gaur egungo Udala ikertu nahi badu, zer geratuko zaio?". Tolosako artxibozainaren hitzetan, artxiboek duten arronka izugarria da hau.

Zailtasunak ez ezik, abantailak ere ekartzen dituzte teknika berriek. Digitalizazioak, adibidez. Tolosako Udalaren fondoan, 1915. urtera arteko aktak digitalizaturik dituzte. "Momentuz, oinarriko eta askotan kontsultatzen diren serieak ditugu eskaneatuta". Digitalizazioak abantaila asko ditu: "Segurtasun kopia izatea, erabiltzaileei dokumentuak eskuragarri jartzea, difusioa erreztea, eta baita ere, dokumentu originala ez hondatzea".

## UDALAK, HERRITARRAK ETA IKERLARIAK

Pentsa litekeenaren kontra, Tolosako Udal Artxiboko lehenengo erabiltzailea Udala bera da, bere eguneroko lanerako hainbat kontsulta egin behar izaten baititu. Herritarrek ere eskaerak egiten dituzte artxiboan. "Euren eskubideak bete ahal izateko zenbait agiri behar izaten dituzte; errolda agiria esaterako. Agiri horiek hemen ditugu". Azkenik, hirugarren erabiltzaile mota ikerlaria da. "Ikerlariak era guztietakoak



1282ko Tolosako hiri-gutunaren berrespena.

ditugu; herritarrak berak etortzen dira zenbait kontsulta egitera; horrez gain, historialariak eta bestelako ikerlariak ere hemen izaten ditugu, tesiatarako, liburuak argitaratzeko... gure agiriak kontsultatzen. Une honetan, Bayonetaren hurrengo aleak kaleratzeko datuak ikertzen ari da Carlos Rilova, eta besteak beste, Gipuzkoako nekazaritzari buruzko ikerketa edo merkataritzaren gaineko beste batean ari dira beste ikerlari batzuk".

Udal artxiboaz gain, Tolo-

san badira artxibo gehiago ere; izan ere, erakunde bakoitzak, txikia edo handia, bere artxibotxo ezinbestekoa du. Bate- tik, ezaguna da, San Frantzisko pasealekuan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Bette- tik, fabrikek, urte askoz mar- txan daramatzaten lantegiek, erakundeek, etab. euren artxi- boak dituzte. Ondare histori- koaren legeak, 50 urte baino gehiago dituen dokumentua "dokumentu historiko" moduan definitzen du, eta berau gordetzera behartzen

du jabea. Legeetatik kanpo dago ordea norberaren boron- datea eta sentsibilizazioa. "Ondarearen babeserako, oso garrantzitsua da dokumentu historikoak ondo gordeta eta eskuragarri egotea".

## BA AL DAKIZU NON DAGOEN UDAL ARTXIBOA?

Tolosako kaleetan galdera hau eginez gero, gutxik eman- go lukete erantzun zuzena; gehienek, San Francisco pase- alekura joko lukete. "Artxiboa hitza aipatu eta bi muturreko

*"Sute eta uholdeez gain, beste bide batzuetatik ere galdu izan da informazioa. Horregatik, udal artxiboan ez dute Tolosaren hiri- gutuna aurkitzeko esperantza galdu"*

jarrerak izaten ditu jendeak: Batzuei, izugarri interesgarria iruditzen zaie; gehien- goa, aldiz, izutu egiten da". Egiari zor, historia jende gutxi- rengana iristen den alorra da. Gainera, "herriaren iragana ezagutzeko, herria bera maitatu behar da. Beharrezkoa da sentsibilizaturik egotea, eta jendeak ez du horretarako astirik". Jarrera honen aurre- an, eguneroko lanen artean, herriaren iraganari buruzko jakin-mina ereite lan horretan jarduten dira udal artxiboan. "Historia jendearengana helaraztea ez da erreza". Orain dela hiru urte jarri zituzten "Tolosako Begiratokiak" herrian zehar, tokian tokiko informazio historikoarekin. Abenduan aurkeztu zuten Bayoneta aldizkaria. Bertan, okupazio frantsesaren garai- ko Tolosan gertatutakoak kon- tatzen dira. Lehenengo alea abenduko azoka berezian banatu zuten. 2009a amaitu artean, hurrengo hiru zenba- kiak plazaratu nahi dituzte. "Badirudi harrera ona izan duela", dio Guadi Larrartek. Hazia jartzen ari dira. Tolo- saren iraganaz gehiago jakin nahi duenak, zabalik ditu udal artxiboko ateak. ■



Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA

**Anetxe**  
LORATEGIA CB  
Etxebarru zela kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor eta apaindura tresnak.



**CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D. G. S. J. 1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-aseguruak  
Kotxe-aseguruak  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-aseguruak  
Denda-aseguruak  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

**ALKIZA >>>** BI HILABETEREN BURUAN HASI NAHI LUKETE ARAZTEGIA JARTZEKO LANETAN

# Alkizarren beharrak asetzeko proiektuak

*Alkiza albiste izan da azken asteetan. Bertan jarriko duten Bida sisteman oinarritutako araztegi berritzaileak komunikabideen arreta bereganatu du. Inbertsio honek lehentasun osoa izan du, besteak beste, lehengo araztegia zaharkiturik geratu zaielako. Honetaz gain, beste proiektu garrantzitsu batzuk ere lantzen ari dira herrian: Eskola handitzea eta zentro soziala. Guzti honetaz hitz egin du Galtzaundik Jon Roteta, Alkizako alkatearekin.*

Leire Zubeldia

## **Araztegi berria jarriko duzue laster**

Foru Aldundiarekin harremanetan egon gara azken egunetan. Beraiek hirurogehi mila euro emango dizkigute. Oraindik ez dugu ezer sinatu baina

hortan geratuko gara. Proiektuaren aurrekontua, ehun eta hogeita mila euro, eta ehun eta berrogeita hamar mila euro artean ibiliko da. Proiektuaren zati handi bat beraz Alkizak hartu beharko du beregain.

## **Inbertsio potoloa da Alkizarentzat, baina beharrezkoa ere bai ezta?**

Inbertsio handia da bai, baina araztegi berria beharrezkoa da. Orain duguna zaharkituta geratu zaigu. Hogeita bost urte egin ditu dagoeneko. Jarri genuenean punta-puntakoa zen. Orduan, herri-gunean 70 lagun bizi ziren; orain berriz, 170 lagun inguru izango gara. Herria haztea ez da nahikoa, zerbitzuak ere tamainakoak izan behar dute.

## **Bida izeneko sisteman oinarritutako araztegia da jarriko duzue-na. Azalduiguzu zertan datzan.**

Bidatek enpresak egin duen araztegi berria da. Herri txiki eta landa inguruetakoa diseinatuta dago. Funtzionamendua sinplea da: Ur zikinak hartu eta arketa batera joaten dira. Hemen, urak dakartzan zikinak (plastikoak, zakarrak, tapoiak...) bereizi egiten dira. Bomba baten bidez, urak mugimenduan jartzen dira. Horrela, uraren erdia txirbila eta zerrautsa dagoen arketara bideratzen da, eta beste erdia, mugimendua eragiteko indar gisa erabiltzen da. Txirbila ontzi batean dago. Hemen kapa ezberdinak dauka. Kapa hauetan ura filtratzen joaten den heinean, bertan dauden txitxare moduko batzuek jaten dute zikina, eta azpitik, ura garbi-garbi ateratzen da. Kloroarekin tratatu eta ibaira joango litzateke ur hori. Bestalde, txirbil horre-

kin konposta egiten da. Hau ongarri moduan erabili daiteke.

## **Araztegi honek eman dituen emaitzen berri ba al duzue?**

Espainiako Estatuan ez da horrelako araztegi jarri. Alkiza izango da Bida sistema praktikan jarriko duen lehena. Chilen ba omen daude batzuk, eta emaitza onak ematen omen ditu. Hala ere, esperientzia pilotu gisa, herriko baserri batean jarri dugu araztegi txikiago bat. Gustura geratu gara; emaitzak onak dira. Aurrera egitea erabaki dugu.

## **Non jarriko duzue araztegia?**

Orain fosa dagoen lekuan jarriko dugu. Lehenbailehen hasi nahi dugu gainera. Foru Aldundiarekin konbenioa sinatu, eta hemendik bi hilabetera edo, lanean hasi nahi genuke.



Alkizako baserri batean jarri dute araztegi hau bere emaitzak frogatzeko.



**TOLOSA >>>** AMAROTZ AUZO ELKARTEA EKITALDI UGARIEN ANTOLATZAILEA DA

# Amarotz, aparteko auzoa

*Amarotz, Tolosa herrigunetik aparte dagoenez, auzo marginala izan zitekeen. Baina ez da hala; alderantziz, baizik. Auzo bizia da. Urtean zehar antolatzen diren ekintza ugariak eta hauek antolatzen dituzten kultur talde ezberdinak dira horren frogagarri. Egungo Amarotz margotzen, Amarotz Auzo Elkarte aritu da. Elkarte honi zor zaio Tolosako auzoak duen kolore ederra. Galtzaundi, elkartearen eguneroko jarduna ezagutzera hurbildu da aparteko auzo honetara.*

Leire Zubeldia



Amarotz auzo Elkarteak kideak.

1972an etorri ziren lehenengo bizilagunak Amarotz auzora bizitzera. Urte beteren buruan sortu zen “Padres de familia de Amaro” elkarte. Frankismoak elkarteko onartzen zuen egitura bakarra zen hau. “Elkartearen helburua begibistakoa zen: auzoa egoera txarrean zegoen, dena zen eginkizun. Lanean hasi ginen, gure bizitokiak gutxieneko baldintzak izan zitzaizkizun”, azaldu du elkarteko kide batek. Auzolanean egin zituzten besteak beste, gaur egungo futbol zelaia eta bola-tokia. Behin frankismoa amaitu zenean, “Padres de familia de Amaro” desegin eta Amarotz Auzo Elkarte sortu zuten. “Batetik, izena diskriminatzailea zen eta aldatu egin genuen”. Baina ez zen izena izan aldatu zen bakarra: “Egitura berriak, auzoko biztanle guztiak elkartearen parte izateko bidea ematen zuen, auzoarentzat garrantzitsuak ziren erabakietan hitza izateko aukera eskainiz”. Auzoa hazten joan den heinean, auzo elkarte ere hazten joan

da. Gaur egun, auzotarren %60a elkarteko bazkidea da. “Urtean 10 euroko kuota ordaintzen du bakoitzak. Diruak baino gehiago balio du ordea, auzo elkartek egiten duen lanak biztanleen %60aren babesarekin duela jakiteak”.

## AUZO ELKARTEA, TALDE ASKOREN AMA

Auzo elkartek, bere ibilbidean hainbat talde erditu ditu; talde hauek, bakoitzak bere esparrutik elkarrekin eta auzo elkarrekin dute. Auzo etxean bildutako auzotarrek, 1982an sortu zen “Amarotzeko gaztedia” taldeak izan zuen garrantzia azpimarratu dute. “Honen jaiotzak elkarrekin potentzializatu zuen. Elkartearen funtzionamendua sustatzeaz gain, denboran iraun duen kultura parte hartzaile bat sortu zuen”. Talde horretako gazteek, gaur egun auzo elkarteko motorra osatzen dute.

Beti-gazteak taldean berriz, herriko jubilatuek biltzen dira. “Baina ez gara talde itxi bat; auzo osora zabalik dagoen elkarrekin

gara”, azpimarratu nahi izan du bertako kide batek. Ekintza mordera antolatzen dituzte urtero: “persona helduari omenaldia; eskulan eta jostuntza tailerrak; Tolosaldeko jubilatuen martxa; bingo; otordu ezberdinak...”.

Talde ezberdinak aipatzen hasita, ezin bazterrean utzi hain maitea duten “Txiki txoko” delakoa. Duela sei bat urte jarri zuten martxan. Haurrak eskolatik atera eta etxera joan beharrean, eurak eta hauen gurasoak elkarteko helburuarekin zabaldu zuten jolas-txoko hau auzo etxean bertan. Bertako guraso batek azaldu duenez, “haurrak elkarrekin lagun egin eta auzora etorri berriak diren bikote gazteak elkarrekin ezagutzeko balio du txokoak”. Guraso honen hitzetan, auzotar gehiagok animatu beharko luke arratsaldetan txokora hurbiltzera.

Era honetan, Amarotz kirol elkarte, Amarotz-udaletxealan taldea, Amarotz dantza taldea, euskal dantza txiki, Amarotzeko antzerki artisauak, Konpo-

nezinak txaranga, aerobic taldea, solfeo, txistu eta haizezko instrumentu taldea, txikien gimnasia erritmikoa, jostuntza tailerra, eskulan tailerra eta euskal abestien lagunak abesbatza dira auzoko kultura eta kirol bizitzaren sustengua.

## EKINTZA UGARIEN ANTOLATZAILE

Amarotz auzo elkartean ez dira geldirik egotekoak. Urtero ekintza mordera antolatzen dituzte; denak hausnarketa batetik abiatuta jaiotzen dira. “Antolatzen ditugun ekintzek, auzoari bizia ematea dute helburu; baina horretaz gain, balore batzuk lantzeko xedea ere izaten dute”. Auzotik, nahi duten Euskal Herria eraikitzen ari direla diote,

Azaldutakoaren adibide bat da, otsaila amaieran ospatuko den zuhaitz eguna. Duela hamairu urte inguru hasi ziren ohitura honekin, nahiz eta urte batzuetan ez den egin. “Zuhaitz bakoitzak umek bat da. Auzoan jaiotza

ko umeak eta bere gurasoek lantzen dute zuhaitza. Honi, haurraren izena jartzen zaio”, azaldu dute. Aurten, 2006an, 2007an eta 2008an jaiotako haurrekin egingo dute festa. “Ekintza honen helburua, naturarekiko sentsibilizazioa bultzatu eta guraso eta seme-alabak denboran zehar zuhaitz hori zaintzea da”.

Auzo elkartearentzako beste ekintza garrantzitsua, urtero, martxoan egiten duten merkatu txikia da. “Ekuadorreko kooperante gisa joan zen auzoko lagun bat. Handik laguntza eskatu zigun, eta horrela hasi ginen merkatu txikia antolatzen”. Lehenengo urteetan auzoan bertan

ak egiten duen lanari. Aurten, martxoaren 9tik 15era egongo da zabalik merkatua.

Amarotzen egiten dituzten ekintzen zerrenda luzea da: Araxes-eko itzulia, San Joan sua eta barrikotea, Santo Tomas eguneko barrikotea... Dena, auzotarrak etxetik atera eta kalei bizia emateko.

### LEKUKOAREN ARAZOA

Amarotz auzo elkarteak, beste hainbat tokitan duten arazo berarekin egin du topo. 80. hamarkadan Amarotzeko gaztediak eraiki zuen zubiak ez du gaur arte irauterik lortu. “Egun, Amarotzeko gaztediak ez du



jartzen zuten azoka, ondoren San Frantzisko pasealekura mugitu ziren, eta azkeneko urteetan, Tolosako Kultur Etxeko aretoan jartzen dute merkatua. “Ekuadorreko lagun hark alde egin zuen eta beste herrialde batzuetara (Palestinara, Sahararara...) bideratu genuen dirua”. Azkeneko urteetan Nicaraguara bidaltzen dute dirua, han, beste kontaktatu bat baitute. “Izan ere, diruaren truke konpromiso bat eskatzen dugu: bidalitako diru hori zertarako erabiltzen duten frogatzea”. Horrek sinesgarritasuna ematen dio auzo elkarte-

funtzionatzen. Hori ordaintzen ari gara dagoeneko, eta etorkizunean ere ordainduko dugu”. Gazteek, eta oro har auzotar gehienek ekintza jakinetan parte hartzen dute, baina eguneroko lanerako bolondresak topatzea ez da erraza. “Garaiak aldatu egin dira, eta gaur egungo gazteak ez dautegu egon ginen egoera berean; beste helburu batzuk dituzte”. Hala ere itxaropenik ez dute galdu. Urtean zehar, auzoaren alde egiten duten lan guztia da horren frogagarri. ■


## Auzotarrei kontsulta egiteko prestatzen

*Zer nolako Amarotz nahi duzue 2015ean?* Galdera hori egingo diete Amarotzeko auzotarrei prestatzen ari diren kontsultan. “Auzokideei nolako auzoa nahi duten erabakitzeke eskubidea eman nahi diegu. Ikusle soilak izatetik haratago, biztanleak, euren auzoaren eta herriaren etorkizuna erabakitzeke prozesuaren parte izatea nahi dugu”.

Kontsultaren ideia hau egitea hausnarketa luze baten ondorioa da. Amarotz auzoak aldaketa handiak jasango ditu datozen urteetan. Paper fabrika dagoen lekuan 290 etxebizitza egin behar dituzte. Auzoko biztanleen kopurua hazi egingo da nabarmen, beraz, zerbitzuek ere maila berean hazi behar dute. Guzti honek, Amarotzen plan orokor berri bat diseinatzera bultzatu du Udala. “Auzoaren etorkizunaz hitz egiten ari gara. Ez da txantxetako kontua. Orduan, guk, Udalarari adierazi genion, auzoan egiten zen guztia auzotarren onespenerekin egin behar zela”. Udalarari onartu egin zuen Amarotz auzo elkartearen eskaera, eta hilabetero, 12 auzotarrak osatutako lan taldea Udaleko ordezkariekin bil-

tzen da. “Plan orokorra elkarnalean lantzen ari gara”.

Kontsultaren bidez, herritarrei plan orokor horrekin ados dauden edo ez adierazteko eskubidea eman nahi diete. Kontsulta egin ondoren, ondorio guztiak bildu eta diagnosi bat egingo dute. Diagnosi horri auzoko asanbladan argi berdea eman eta Udaletxean aurkeztuko dute. “Horrela, Tolosako udalarari herritarren parte hartze erreala posible dela erakutsiko diogu”. Izan ere, Amarotz auzo elkarteak, kritikoa da Tolosa 2015 prozesuarekin. “Tolosako udalari gabezia demokratiko hori du. Ez du herritarren parte hartze erreala onartzen. Tolosa 2015 bezalako prozesuak, benetazko parte hartzea ahalbidetzen duten atak dira, baina horretarako foro hauek herritarren eskuetan egon beharko lukete, eta ez alderdi politikoetan”, azpimarratu dute. Kritikatzera mugatu ordez, ekintzetan oinarritu nahi dute euren desadostasuna. Kontsulta egin ahal izateko, Parte Hartuz aditu taldearekin harremanetan jarri dira auzo elkarteak. “Gauzak ondo egin nahi ditugu”, diote.



# Tolosa Bit

Informatika Zerbitzuak

## Hemen da Windows 7

Oria kalea, 14-behea Tolosa • Tel.: 943 676 156 • Faxa: 943 016 857 • tolosabit@facilnet.es • www.tolosabit.es

**E**rabiltzaile gehienak Windows XP-rekin ari direnean, Vistak ez baitu asebate, hemen da Windows 7, Microsoft enpresaren sistema operatibo berria. Produktu berri honek, Windows Xpa ordezkatu nahi du; aurreko bertsio guztiak hobetu nahi ditu.

### VISTA IZAN EZ ZEN GUZTIA

Azkarragoa, politagoa eta seguruagoa. Bere egileek azaldu dutenez, honelakoa izango da Windows 7a. Inork espero duena baino lehen, bazterraziko omen du gainera XP-a. 2009ko eguberrietarako, jaun eta jabe izango omen da. Sistema operatibo honek Vistaren oso antzeko egitura du, baina aurrekoak zituen gabezia guztiak konponduta, eta bere funtzio guztiak lupaz begiratu ondoren xehe-tuta.

Bestalde, kontroladore ereduarekin eta bere aurreko sistema operatiboaren hardwarearekin erabat bateragarria izango da. Gainera, erabiltzaileek maiztasun handienarekin erabiltzen ditugun funtzioak sinplifikatzeko gaitasuna izango



du. Zalantzarik gabe, Vistak alor honetan zituen hutsune gehien.

Arinagoa izango da, eta azkarragoa ere bai, batez ere ordenagailu moteletan, netbooketan esaterako.

Windows 7ren interfaza bere anaia txikiak zuenaren oso antzekoa den arren, berrikuntza erakargarri ugari dakartza. Alde batetik, sahietseko barra, non gadgets guztiak kokatzen

diren, ez du horrenbesteko lekua hartuko, eta gure eskritorioa libreago geratuko da. Gadget bakoitza xaguarekin eraman ahal izango dugu, eskritorioko nahi dugun tokira.

Baina hau ez da guztia. Windows 7ak, funtzio ezberdinak jasoko dituen barra berri bat izango du. Bertan, gehien erabiltzen ditugun aplikazioak jartzeko aukera ematen du gainera.

Sistema operatibo berriak eskainiko duen interakzio aukera (hardware eta berezotasun ukigarriarekiko) ere Vistarena baino handiagoa izango da. Honek multi-touch teknologiaz gozatzeko bidea emango du. Horrela, leihoak lekuz mugitu, argazkiak trukatu, musika erreproduzitu eta beste hainbat lan egin ahal izango ditugu gure behatzekin pantaila ukituz. ■

## IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak  
Zilar gaitan berezitasuna  
Diseinuko zilarra  
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia  
TOLOSA • Tel.: 943 674 615

## ibarra

Argi-Lanak

Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60



## ARTE TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa, margoak, eskultura.

Tolosa - Kale Nagusia, 16 - Tlf. 677 340 685



Pako Larrañaga alegiarrak bere ilobaren kasuaz hitz egin du.

## “Ea 2009an etortzen den”

2007. URTE AMAIERARAKO, PAKO LARRAÑAGAK ESPAINIAKO KARTZELA BATEAN BEHAR ZUEN

*Amaia Goikoetxea*

**Zure anaia Manuel, Pakoren aita, Alegian omen zen kontu hau guztia hasi zenean.**

Bi ahizpa hauen erahilketa 1997an gertatu zen, uztailaren 16an, Karmen egunean, Alegiako festetan. Nire anaia hona teoria zen. Irailaren amaieran jaso zuen Pako atxilotu zutenaren abisua. Gehiegi ez arduratzeko esan zioten, baina beharrezkoa zela Filipinetara itzul zedin. Gu ez ginen oso arduratuta geratu, ez zela ezer gertatzen esan ziguten, bazirudie-la nahaste bat izan zela, kartzelan zegoela, bai, baina laster kalean izango zela.

**Pako Larrañagak hamaika urte daramatza Filipinetan preso, 1997an Cebu-n bi ahizpa bahitu, bortxatu eta erahiltzea leporatuta. Berak ordea, errugabea dela dio, berak, eta bere auzia aztertu duten hainbat eta hainbatek; alabaina, Filipinetako justiziak, entzungor egin du beti. Heriotz-zigorra ezarri zioten, baina 2006an Gloria Macapagalek heriotz-zigorra indargabetu ostean, aukera berriak zabaldu ziren Pakorentzat eta bere familiarentzat. Alegiarra da bere aita, eta Alegian bizi ditu egun osaba-izebak; osabarekin aritu gara kasuari buruz hizketan, Pako Larrañagarekin.**

**Baina egunak aurrera zihoazen eta...**

Manueligaldetzen genion Pako zer moduz ote zegoen eta zergatik izan zen kartzelaratua, zer leporatzen zitzaion. “Pakori egozten diotena oso larria da, baina gure abokatuak lanean ari dira, eta pen-

satzen dugu bizpahiru hilabete barru hau guztia amaituta egongo dela”, esan ohi zigun anaiak. Azkenean, gauzak benetan okertzen hasi ziren. 2000. urte inguruan egin zen lehenengo epaiketa, eta Pakori eta beste zazpi

inputatuei biziarteko kartzelazigorra ezarri zitzaie, bi ahizpak bahitu, bortxatu eta erahil izana egotzita. Pakorekin batera kondenatu zuten haietako batek inputatu zituen gure iloba eta gainontzekoak.

**Pako, ordea, erahilketa gertatu zenean handik urrun omen zegoen.**

Pako beste uharte batetan zegoen une hartan. Erahilketa Cebu-n gertatu zen, eta gure iloba Cebu-tik 600 kilometroa dagoen Manilan zegoen, hantxe burutzen baitzituen bere ikasketak. Hain zuzen ere, egun haietan azterketak egiten ari zen, baita uztailaren 16an ere.

**(hurrengo orrian jarraitzen du)**

### Hori hala dela baieztatzen duten lekukoak ere badaude.

Hogeita hamabost lekuko, zehatz esateko. Berarekin batera azterketa egin zuten ikasleak, azterketara aurkeztu zela baieztatzen duten irakasleak, bera bizi zen ikasleen egoitzako guardak ere bere testigantza eman zuen Pako egun hartan zein orduan erretiratu zen adieraziz.

### Guztiak alferrik, ordea.

Oso gauza bitxiak ditu kasu honek. Errugabetasun presuntziorik ez, koartadek ez zuten ezertarako balio izan... Aipatu zen posible zitekeela Pako uharte batetik bestera joan izana erahilketa burutzeko. Hori hala izan ez zela frogatzeko, egun hartako hegaldi guztien datuak ere aurkeztu ziren, baina hori ere ez zuten kontuan hartu. Horrez gain, kontu ilunak azaldu dira kasu honen inguruan.

1997an, erahildako bi nesken aita drogazale batzuen arteko liskar batean sartuta agertu zen, eta bere alabei zerbait gertatuko zitzaizaien mehatxua ere jaso omen

zuen. Noski, hori ez dago baieztatzerik, baina Filipinetako egunkari batean gaiari buruz azalduko informazioa gordeta dut nik etxean. Bestetik, esan da Pako eta gainontzekoak inputatu zituen gazte hura lekuko babestu bat ote den. Gainera, mutil honek hildako nesken sendiarekin izan duen harremana ere oso gertuko da, oso nabarmena. Gazte hau desagertuta ere ibili zen... Ez dago ezer frogatuta, baina susmoa dago horretan guztian zerbait ote dagoen. Lehenengo epaiketa zuzendu zuen epailea bere buruaz beste eginda aurkitu zuten hotel bateko gelan. Eta gogoan dut, hasieran kasua eraman zuen polizia batek nola zioen berak ez zuela ulertzen nola iritsi zen Pakoren izena kasu honetara.

### Biziarreko kartzela-zigorra ezartzen zion lehen epai hura apelatu egin zen.

Bai. Kasuaren berrikuspen bategin zen, eta gure uste guztien aurka, heriotz-zigorra ezarri zioten Pakori.

Oroitzen naiz n o l a 2004ko otsailaren

4an goizeko 6:00etan anaiak deitu zidan Filipinetatik zera esateko: "Pako, semea hil behar didate". Bagenekien Pakoren kasuan gauzak okertzen zihoazela, baina uste genuen apelazioaren ondorioa aske uzte izango zela, eta ez aurkakoa. Pako heriotzaren korredorean sartu zuten.

### Euskal Herrian, baina estatu espainiarrean ere, Pakoren errugabetasunean sinetsi da hasieratik. Filipinetan, ordea, kontuak oso bestelakoak izan dira.

Filipinetan sekulako jazarpena jasan du Pakoren familiak. 'Mendeko krimena' ditu diote bi ahizpa hauen erahilketari. Esan bezala, bazeuden lekukoak Pako beste uharte batean zegoela baieztatzen zutenak, baina Filipinetako iritzi publikoa guztiz aurka izan dute. Hango gobernuko alderdititik hurbil zebilen jendeak bazuen zerikusia bi ahizpen sendiarekin; presidente izateko aurkeztu zen Estrada ere tartean zegoen eta hark ere aurkako iritzi hori bultzatzen zuen. Krimen ikaragarri bat izan zen, eta norbait bilatu beharra zegoen egingakoa ordaintzeko. Gainera, Pako kanpotar baten semea, eta elite batekoa... Liskar politikoak ere baziren tartean. Pakoren amaren aita, bere aitona alegia, presidente izandakoa zen, eta ondorioztatzen zen mendekua edo... ez dakit hitza mendekua den, baina hortik ere bazegoela zerbait.

### Errukia eska zezan aholkatu zioten Pakori.

Errukia eskatu beharko zukeela esaten zioten, baina berak garbi zuen ez zuela halakorik egingo, ezta bere biziarekin ordaindu behar bazuen ere, berak ez baitzuen egozten zitzaiona egin. "Nik nahi dudana epaiketa garbi bat irekitzea da, aurrekoetako baldintzak okerrak izan baitira", zioen. Alferrik izan ziren, ordea, kasua berriaz irekitzeko egindako eskaera guztiak.

### Euskal Herriatik ere jorratu zenituzten berrikuspen hori lortzeko bideak.

Garbi zegoen zerbait lortzeko ahalegina Espainian ere egin behar zela, nortasun espainiarra baitauka Pakok. 2006an Pako epaitu zuen epailearekin egoteko aukera izan genuen Zumarragan, garai hartan bertako alkate zenari esker. Elkarrizketa oso gogorra izan zen. Azaldu genien Euskal Herriko eta Espainiako gobernuetako abokatuek, abokatu partikularrek eta Europako Batzordeak berak ere kasua aztertu zutela, eta helegiteak bidali zituztela bai beraiei, baita Filipinetako presidenteari ere, guztien ustetan ulergaitza baitzen kasua eraman den bezala eraman eta halako ondorioak izatea. Eta galdetzen genien, nola zitekeen bi epaiketako baldintzak ikusita beste aukerarik eman gabe Pako heriotz-zigorra kondenatzea. "Zuek nahi duzuen esango duzue, sufritzen ari zarete, baina ez dago bueltarik", esan ziguten. Ez ziguten inongo aukerarik zabalik utzi. Hori bai, nabarmentzekoa da hemengo jendeak eskaini digun laguntza, ikaragarria izan da. Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako agintariei, bereziki Mari Karmen Marini eta Joseba Azkarragari, beti eskertuko diegu gugatik egin duten guztia. Madrileko senatari eta diputatu nazionalistekin ere, Iñaki Anasagastirekin eta Joseba Zubiarekin batik bat, etengabeko harremanean gaude. Eta herritarrek erakutsitako babesa ere izugarria izan da, sinadurak bilketak... TAU bera ere sartu zen, baita Celta de Vigo futbol taldea ere... Sinestezina izan da Euskal Herriatik eta Espainiatik jaso dugun babesa.

### 2006ak, behingoz, berri on bat ekarri zuen.

Bai. Filipinetako presidentek, Gloria Macapagalek, heriotz-zigorra indargabetu zuen. Sekulako deskantsua izan zen hori, bai Pakorentzat baita guretzat ere, deskantsua eta poz izugarria.





Heriotzaren korredoretik atera zuten, ederki kostata izan bazen ere, eta beste presoekin harremanetan egotea ahalbidetu zion horrek

#### **Eta egoera berri horren aurrean, zer?**

Filipinetako egoera aldatu zenez, Pako hona etortzeko aukerarik ba ote zegoen aztertzen hasi ginen, eta ahalegin horren emaitza Espainiak eta Filipinek sinaturiko hitzarmen bat izan da. Hitzarmen horrek ahalbidetzen duena ondokoa da: Espainian dauden preso filipinarrak hara eramatea, eta nortasun agiri espainiarra duten presoak Espainiako kartzeletara ekartzea. 2007ko abenduaren 28an onartu zen hitzarmen hori. Esan ziguten, behin indarrean sartuta, hitzarmenak eragin automatikoa izan beharko zukeela, eta beraz, 2008an Pako hemen izatea espero genuen. Baina ez da horrela izan. Dirudienez, Filipinetako Kongresutik eta Senatutik pasa behar du dokumentuak presidentek sinatu baino lehen; Senatuak egin du bere lana, baina Kongresuak oraindik ez. 2007ko abenduaren 28tik urtebete baino gehiago pasa da, eta oraingoz hitzarmenak ez du inolako ondorioirik izan.

#### **Zer moduz dago Pako?**

Lehengoarekin alderatua, oso ondo. Lehen bizia zihoakion, eta gero eta estuago zegoen. Baina berak beti esaten zuen nahiz eta bizia han galdu, ez zuela ezer egin eta ez zuela egin ez zuen ezer aitortuko. Alde guztietatik izan ditu presoak errukia eskatzeko. Familiak, ordea, errespetatu egiten zuen berak esaten zuena. Nire



anaia eta bere aitak ere halaxe esan zion lehen egunetik: "Pako, zu izan bazara, ordaindu egin beharko duzu; zu izan ez bazara ni arduratuko naiz behar den guztia egiteaz".

#### **Hasieran nahaste bat izan zela esan zizueten, baina Pakok hamaika urte daramatza kartzelan eta heriotz-zigorrrera kondenatu dute. Kontu honetan guztian zer gertatu dela uste duzue?**

Gu handik urrun bizi gara, baina horri buruz nik askotan hitz egin dut anaiarekin, hor zer gertatu ote den, eta garbi esateko, ez dakigu. Ez dakigu nork mugitu duen kontu hau guztia, zeren garbi dago hemen norbaitek mugitu dituela hariak eta Pakoren bila joan direla zuzenean. Orain, hor tartean zer dagoen ez dakigu. Norbaiteko jakingo ote du han? Agian bai. Hurbilekoen batek akaso? Ez dakit. Nik

ez dakit nola arraio iritsi den kontu hau hain urrun.

#### **Ziur al zaudete Pakoren bila joan direla?**

Nik uste dut nahiko adierazgarriak direla epaiketean ikusi diren baldintzak, lekukoak aintzakotzat ez hartzea.... Nire ustez hor zer bait gertatu da. Zein mailatako gertakizuna? Politikoa? Ez dakit zer izan den, baina Pakoren bila joan dira zalan-tzarik gabe. Eta baliteke eskarmentu baten bila joan izana, nork jakin. Izan ere, hain ulergaitza da dena... Hogeita hamabost lekuko, hainbeste ebidentzia.... eta kasurik ez.

#### **Pako Espainiara iristen denean?**

Espainian ez dago heriotz-zigorrik, ezta biziarteko kartzela-zigorrik ere. Gainera hamaika urte daramatza kartzelan, eta hemen beti esan digute Pako-

ren auzia oso garbi dagoela. Noski, ez digute agindu Espainiara iristen denean aske utziko dutenik, ez baitute hori egite-rik; hitzarmenak ez du bide hori urratzen, esaten duena da presoak kondenatu duen herrialdeak esaten duenarekin bat etorri-egon beharko duela kondena beteko duen herrialdean. Baina noski, horrek ez du esan nahi Espainiako gobernuak indultu edo grazia bat aplikatzeko biderik urratu ezin deza-keenik. Etortzen denean zenbat denbora egin beharko duen kartzelan? Guk denbora hori ahalik eta laburrena izatea nahi dugu, hirugarren gradu bat... Badaude halako perspektiba batzuk. Itxaropen horrekin gabiltza. Orain, noiz etorriko den? Lehen 2008ko apirilera-ko espero genuen, gero urte bukaerarako... Ea 2009an etor- tzen den. ■

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

**ZALBIDE**

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

jarri  
zure publizitatea  
hemen



**ONAK**  
MARMOLAK, S.A.

**Mota guztietako lanak:**  
Granitoan marmolean eta  
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Sailsa, 1 • URNIETA  
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613

**IBARRA >>>** “IBARRAKO KIROL ELKARTEA 1966-2008” LIBURUAN BILDU DUTE ELKARTEAREN HISTORIA

## Kirol Elkartearen historia liburu batean

*Ibarrako kirol elkartearen historia biltzen duen liburua kalean da jada. Hilaren 14an aurkeztu zuten Ibarrako Kultur Etxean. Ekimena Emeterio Sorazu, Ibarrako erretorearena izan zen; elkarteko zuzendaritzaren oniritzia eta laguntzarekin, bazkide eta herritarrek esku artean dute “Ibarrako K.E. 1966-2008; elkartean, herrigintzan” liburua.*

Erredakzioa

**I**barrako Kirol Elkarte-ko bazkide eta herritarren aurrean aurkeztu zuten “Ibarrako K.E. 1966-2008; elkartean, herrigintzan” liburua. Aurkezpenean egon ziren Emeterio Sorazu eta Jose Mari Arruti, liburuaren egileak; Ramon Iglesias, kirol elkarteko idazkaria; eta Juan Agustin Azpiroz lehendakaria. Mahaian zeudenen hitzaspertu laburraren ostean, mokadutxo bat jan eta liburua eskuratzeko aukera izan zen.

### BULEGOTIK ARGITARA ATERA BEHARREKOA

Aurkeztu berri den liburua, Emeterio Sorazuren ekimenean du sorburua. Ibarrako erretore izandakoa, Kirol Elkarteko kideekin harremanetan jarri zen joan den urteko ekainean. Artean, bazekien elkarteko bulegoan informazio interesgarri mordoa zegoela hautsak hartuta. Izan ere, Ibarrako Kirol Elkarte, 4 hamarkadako ibilbidean, kirol eta kultur ekintza ugari antolatzailea izan da. Akta-



Juan Agustin Azpiroz, Ramon Iglesias, Emeterio Sorazu eta Jose Mari Arruti.

liburuak eta argazki bildumak arakatu ondoren, gorde-ta zegoen altxor hau argitaratu eta herritarrei erakusteko proposamena egin zuen erretoreak. “Material guzti hau argiratzeak merezi zuela esan nien zuzendaritzako kideei; eta baita onartu ere”, azaldu zuen Sorazuk, elkarteko lagunen prestutasuna eskertuz.

Zergatik argitaratu? Emeteriok ondo baino hobeto arrazoitu zuen ekimena. “Bakoitzak patxadaz elkartearen bizipozak aztertze; ondorengoak elkarteko ekintzetara animatzeko; Ibarrako kondairen artean, elkarteak merezi duen miresmena ikustarazteko; gaur egungo egoismotik atera, eta jendea elkartzera bultzatzeko; eta azkenik, elkarte bideratu duzuenon esperitua jasotzeko”.

### AKTAK, ARGAZKIAK ETA TESTIGANTZAK

Behin erabakia hartuta, Emeterio, zazpi akta-liburu eta zortzi argazki bildumetan zegoen materialari hasi zen tiraka. “Aktak pazientzia handiz eta patxadaz aztertu ditut”. Zailtasunak ere izan ditu, unean uneko idazkariak eskuz idatzitako zenbait laburpen ulertzeko. “Horregatik hutsune batzuk aurkitu ditu irakurleak”. Hala ere, akta-liburuetan aurkitutako informazioarekin, 1966tik 2008ra artean, elkarteak egindako ibilbidea osatu ahal izan du. Liburuaren lehenengo zatian jorratu ditu 4 hamarkadak. Bigarren zatian berriz, bildumetatik ateratako argazkiak daude ikusgai. Guztira 450 argazki aurkitu zituzten, baina ez dira denak argitaratu ahal

izan. “Bai esanguratsuenak ordea. Oso argazki ederrak daude. Hauek ikustean, konturatuko zarete, zuek etxean dituzuen elkarteko argazkiak ere balio zutela liburuan jartzeko”, zuzendu zitzaizen aretoan zeuden bazkideei, “horregatik, bilketa lana egin eta pixkanaka irudiak argitaratzen joateak merezi duela uste dut”. Argazki bilduma egiteko Jose Mari Arrutiren laguntza izan du Emeteriok. “Laguntza eskatu nio- nian, lanerako prest agertu zen. Argazkiak digitalizatu, txukundu eta liburu orrietan ondo antolaturik jarri ditu”. Bi egileen lana eta esfortzuarri esker, Ibarrako Kirol Elkarteak, 1966tik 2008ra arte egin duen bidea liburu batean jasoa du, bazkide eta herritar guztien gozamenarako. ■

**IBARRA >>>** URTARRILAREN 30ETIK OTSAILAREN 8RA IZANGO DA UZTURPE IKASTOLAKO KULTUR ASTEA

# Ikastolatik herrira kultura zabalduz

*Uzturpe Ikastolak antolatzen duen IX. kultur astea da hau. 2000. urtean hasi ziren ekimen hau aurrera eramaten, ikastolen promozioa egiteko asmoz. Horretaz gain, kultura ikastolatik herrira zabaltzea, eta gurasoak heziketa proiektuaren parte egitea du xede kultur asteak.*

Erredakzioa

**U**zturpe Ikastolan, beti izan dute argi, gurasoak heziketa proiektuaren zati izan behar dutela. “Umeen heziketa ez da soilik ikastolan egin beharreakoa, familien parte hartzea azpimarratzen dugu”, dio Jokin Zugasti, Uzturpe Ikastolako zuzendariak. Herriari kultur eskaintza bat egiteaz gain, gurasoen formaziorako baliatzen dute kultur astea.

## ALURR DANTZA TALDEAREN SUA IKUSKIZUNA

Ibarrako dantza taldeak azaroan eskaini zuen estreineko aldiz Sua ikuskizun berria. Jende asko sarrerarik gabe geratu zenez, bigarren aukera bat ematea pentsatu dute Uzturpen. “Gainera, ikastolak harreman handia du Alurr dantza taldearekin. Euren herrian dantzatzek motibatu egiten ditu eta saio polita eskainiko dute”. Sarrerak (helduak 8 euro, 16 urtetik beherakoek 4 euro) salgai daude, ikastolan, Zubiarren, Karlatzen, Denaken, Rakun eta Orbelan. Eguna: Urtarrilaren 30. Ordua: 22:00. Lekua: Belabieta kiroldegia

## HAUR FESTA

Kultur astearen klasikoa da hau. “Haur festa beti izan da arra-

kastatsua”, dio Zugastik. 0 – 12 urte arteko gaztetxoei dago zuzendua. Belabieta kiroldegiko kantxa puzgarri, jolas eta beselakoez betetzen dute goiz eta arratsalde. 18:00etan, kiroldegitik plazara jaitsi eta txokolatea egongo da denentzat. Eguna: Urtarrilak 31. Ordua: 11:00etatik 13:00etara eta 15.00etatik 18:00etara. Lekua: Belabieta kiroldegia.

## HITZALDIA: NOLA SUSTATU IRAKURZALETASUNA ETXEAN (3 – 8 URTE)

Irakurzaletasuna bultzatzeko Ikastolan garatzen ari diren proiektuaren baitan antolatu dute hitzaldi hau. “Yolanda Arrieta idazlearen eskutik hainbat formazio saio jaso ditugu. Bertan irakurzaletasuna sustatzeko eta idazketa sormena garatzeko teknikak eman zizkigun”. Ikastolaren filosofia jarraituz, etxean ere irakurzaletasuna lantzeko, gurasoei teknika hauen berri eman nahi diete. Eguna: otsailak 2. Ordua: 18:00. Lekua: Kultur Etxea.

## HITZALDIA: 0 – 3 HAURREN HEZIKETA ESTILO BERRI BAT

Uzturpe Ikastolak 0-3 adintarte finkoa bezala ulertzen du, eta lotura bat izan behar dutela uste du. “Partzuegoko, (0-2) eta ikastolako (2-3) hezitzaileak elkarlanean arigara formazioa jasotzen, lotura hori lortzeko”. Gasteizko haur eskoletako hezitzaileak dira hitzaldia emango dutenak. Montse Meana eta Lourdes Garijo. Hauek adin tarte honetako umeekin lanketa ezberdin bat egitea proposatzen digute, umeen potentzialitatea baliatuz: espazioaren berrantolatze berri bat, denborarena, materialarena...”. Eguna: otsailak 3. Ordua: 18:00. Lekua: Kultur Etxea.

## SANTA AGEDA KANTUAN

Uzturpe Ikastolan ohitura den moduan, Santa ageda egunean kalera aterako dira kantu-eskean ibiltzeko. Ordua: 14:00etatik 16:30etara).

## HITZALDIA: DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIOA

Guraso eta irakasle askoren

kezka da hau. “Zalantza asko izaten dira. Zalantzen aurrean informazioa eman nahi diegu gurasoei”. Askagintza Elkar-teak eskainiko du hitzaldia, eta ikastetxean ere hainbat formazio saio eskainiko ditu. Eguna: Otsailak 5. Ordua: 18:00. Lekua: Kultur Etxea.

## EMETERIO ARRESEKO LOKALAREN INAUGURAZIOA

Ikastolak, 2 eta 3 urte arteko gela berria erakutsi nahi die herritarrei. Horretarako, festa txiki bat egingo dute, mokadutxo bat eskainiz. Nahi duten guztiak gonbidatuta daude. Eguna: Otsailak 6. Ordua: 19:00.

## ZERAINGO MEATEGIETARRA IRTEERA

Mendi irteera beste klasiko bat da kultur egitarauan. Ikastolako mendi taldeak antolatuta, Zeraingo meategietara joango dira egun pasa. Goizeko 9:00etan aterako dira plazatik. Eguna: Otsailak 8. ■



Haur festako irudi bat.

**MUSIKA >>>** PEACHY JOKE TALDE TOLOSARRAK OTSAILEAN KALERATUKO DU THE GREY REVEILLE, BERE LEHEN

# Peachy Joke, rock-a eta esperi

2000. urtean hasi ziren talde bezala, eta 2005an atera zuten lehenengo maketa. Urte guzti horietan hainbat kontzertu jo ditu Peachy Joke taldeak; horietatik oso gutxi izan dira Tolosan, euren herrian eskaini dituztenak. Otsaila hasieran plazaratuko den The Grey Reveille euren lehenengo diskoak, etxean zein kanpoan jotzeko aukera ematea espero dute. Rock-ean oinarritutako estilo anitzeko doinuak, esperimentazioa eta ingelesezko hitzak; hiru ezaugarri hauek dira Peachy Joke-n proposamenaren ardatzak. Iñaki Gereñuk "Gere"k lagundu dio Galtzaundiri taldea ezagutzen.

Erredakzioa

## **Peachy Joke taldea ezagutzen ez duenarentzat: Nortzuk zarete?**

Peachy joke Tolosako Rock talde bat da. 2000. urtean, lagun batzuk elkartu ginen musika talde bat osatzeko ideiarekin. 2005. urtea izan zen taldeak Peachy Joke bezala indarra hartu zuen unea. Taldetik jende ugari pasa da, nahiz eta gaur egun hasiera batetik gauden Lemy-k (Gitarra eta ahotsa), Bop -ek (Bateria), Gere-k (Teklatuak eta Txistua) eta 2007 elkartu zen Lou-k (Baxua) osatzen dugun taldea.



## **Kantu ezagunen bertasioak egitetik zuen kantuak sortzera igaro zineten, 2005an maketa kaleratuz: Bertasio hauen eragina somatzen zen kantu haietan?**

Bertasioak hasiera bateko kantuak izan ziren; 2000. urtekoak, ia-ia instrumentuak hartzen ere ez genekien garaikoak. Kantu oso gogorren bertasioak atera genituen, Korn, Coal Chamber, Def-

tones eta horrelako taldeenak. Ondoren, gure kantak sortzen hasi ginen, baina lehenengo maketan grabatutako kantuetan, ez da kantu horien eraginik somatzen.

## **The Grey Reveille, lehenengo diskoa kaleratzeaz duzue: hasierako kantu haietatik diskoan entzungo ditugun kantu bat al dago?**

Bai, alde izugarria. Lehen-

go maketa hartan kantu lasaiak eta kantu gogorrak zeuden, baina orokorrean, maketak nahiko erritmo lasaia zuen. Musika melodikoaz eta esperimentazioz betetako bilduma izan zen.

Taldearen gaur egungo kantuak, eta diskoan bildu ditugunak, askoz ere mugituagoak dira, erritmo landuagoak dituzte, eta batez ere, zuzenean gehiago esker-



*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



**errrotatxo  
okindegia**

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038

HENENGO DISKOA.

# perimentazioa

*“Hemen, ez da erraza, ingelesez abestuz lekua lortzea”.*

tzen diren abestiak dira.

**Musika estilo ezberdinak uzartzen dituzue diskoko kantuetan, baina zein da oinarria?**

Gure musika rock-aren estilo barruan hara eta hona dabilela esan dezakegu.

Hasiera batean, gure taldeak ezaugarri berezirik bazuen, hori musikarekin esperimintatzea gustatzen zitzaigula zen. Gaur ere modu horretan jarraitzen degu, rock-a eginez baina pop, blues, grunge edota folka bezalako estiloak ikutuz.

**Kantuen aldetik ere disko anitza dela aipatu duzue: estilo guztietako kantuak daude alegia...**

Egia esan badaude bi edo hiru abesti pixka bat diskotik aldentzen direnak; Lupin esaterako folk eta pop estiloetan oinarritutako abesti bat da. Leave me love berriz, erritmo kaxaz egindako pop abesti triste bat da. Guztira 12 kantu eta bi bideo klip dira.

**Zenbat denbora eman duzue diskoa grabatzen? Zer nolako prozesua izan da?**

Diskoa Iruñako Monreal estudioan grabatu genuen Hans Krüger-en eskutik. 2007ko abenduan sartu ginen estudioan. Lasai



hartu dugun lana izan da. 2008ko maiatzera arte ez genuen masterra eskuetan hartu, eta beste gauza batzuegatik, oraindik diskoak ez du argia ikusi. Otsaila hasieran plazaratuko da. Gauzak poliki joan diren arren, taldekideak ez gara geldirik egon.

**Hasieratik erabaki al zenuten ingelesez abestea?**

Beno, hasiera batean egin genituen bertsiok ingelesez ziren, entzuten genuen musika gehiena ere ingelesez zen, eta gaur egun entzuten degunaren gehiengoa ere bai. Horrela hasi ginen eta horrela jarraitzen dugu.

**Ingelesez abesteak ate gehiago zabaldu al dizkizute?**

Ez gehiago eta ez gutxiago. Ireki zaizkigun ateak, egiten dugun

musikarengatik irabazitakoak izan direla uste dut. Ez da batere erreza hemen ingelesez abestuz leku bat egitea.

**Diskoa atera eta gero kontzerturik baduzue hitzartuta?**

2008 osoa eman dugu kontzertuak jotzen. Azkenekoa Formigaleko eski estazioan (Anaieten) jo genuen. Urtarrilean Donostiako Fnac-en izango gara. Make-tarekin hiri ugari pasa genituen: Bartzelona, Madrid, Burgos, Logroño, Zaragoza... Diskoa kaleratutakoan, leku guzti hauek ostera bisitatzeaz gain, toki berrietan jo ahal izatea espero dugu.

**Tolosakoak izanik, oso gutxitan jo duzue Tolosan. Irudipen hori dugu behintzat...**

Hala da. Dena den hainbat

alditan jo dugu herrian: Bonberenean hiru aldiz jo dugu, Otsabin beste behin, Cheyenen ere izan ginen, baita Bera-zubiko jaietan ere. Esan dezakegu, Tolosan itzalpean geratu den taldea dela gurea.

**Peachy Joke-ri zer ekarriko dio disko honek?**

Orain behar duguna mugimendua da: Kontzertuak, irratietan eta aldizkarietan elkarrizketak eta horrelakoa...

Bestalde, diskoaren kalera-tzearen zain horrenbeste denbora egoteak bere alde ona ere badu guretzat: 2009ko udaran osatzen ari garen beste disko bat grabatzea espero dugu. Ea momentu onean harrapatzen gaituen. ■

## Zumardi

SEGUROS  
BILBAO



Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

GRUPO CATALANA OCCIDENTE

## Beatriz

Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16 943 425 886	Garibai, 8 943 420 259	Rondilla, 11 943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak  
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak  
etab.

## JANTZIAK

# OSKI

oiñetakoak

Nafarroa Etorbidea, 11  
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA

# Eskualdean judoa ezaguta

OSASUNTSU AURKITZEN DA DAGOENeko MEN

Gorka Otaegi

**D**uela bi hilabete omenduzen Eduardo Ruiz. Eta orduan jakin zuten kirol taldeko arduradunek elkarteak berrogeita hamar urte dituela jada. Hala azaldu digu Tolosa judo klubeko entrenatzaileetako bat den Oscar Gibelalde. Helduei zuzenduta zegoen talde hura pixkanaka-pixkanaka hazten joan zen. “Ondoren, Eraclio Vidal etorri zen, eta hau haurrei ere judoa erakusten hasi zen, herri barruan judoa zabaltzeko helburuarekin”. Klubaren historiako beste aldatzaile garrantzitsu bat Karmele Begiristain eta Paco Pineda entrenatzaileen eskutik iritsi zen. Eraclio hil zenean, ofizialki eratu zuten Tolosa judo kluba, eta “haiek taldea konpetizio munduan sartzen hasi ziren: teknika gehiago lantzen, jendea gehiago entrenatzen... Gaur egun, bide horretan jarraitzen dugu, gero eta hobeto.”

Karmele, Paco eta beranduago sartu zen Oscar Gibelalde, Usabalgo kiroldegi berriaren aritzen dira judokak entrenatzen, baina hainbat leku aldatuta jasan behar izan dituzte, halaber: “Bialetik Euskal Herria plazako kartzela zaharretara pasa ginen. Han bost-sei urtez egon ondoren, kiroldegi zaharrera, Batzokira, berriro kiroldegi zaharrera, eta hamabi urtez bertan oso ondo egon ondoren, oso pauso garrantzitsua izan zen Usabalera etortzea.” Dio Gibelalde. “Donostioa bezalako lekua daukagu: tatamia handia eta oso ona da, paretarik ez dago,

**Eduardo Ruizek sortu zuen Tolosako lehen judo taldea, gaur egungo Tolosa judo klubaren hazia izan zena, duela 50 urte. Ekimen berritzaile eta garrantzitsua izan zen erabat, Gipuzkoako bigarren kluba izan baitzen hau (artearen Donostian soilik zegoen). Bial inguruan izan zuen lehen egoitza, urte hauetan guztietan hainbat aldatuta eta garaipen ezagutu dituen Tolosa judo klubak.**



Tolosa Judo Klubeko kideak.

zutaberik ere ez, nekatu gabe giltza asko egiteko tarima oso ona, berokuntza, aldagela berri eta garbiak... Judoken kalitateak berdina izaten jarraitzen duen arren, erosotasunean asko irabazi dugu.”

## ZALETU UGARI TOLOSAN

Neurri handi batean, Tolosa judo klubak egindako lanaren ondorioz, Tolosan bada judo-arekiko zaletasuna. Une honetan, 160 bat judoka daude taldean. Horiez gain, “entrenatzaile edo denbora pasatzaile” joaten diren beste hainbat judozale ere hurbiltzen zaizkie. Herriko judoken mailari dagokionez “askotan sorpresa han-

dia hartzen dugu Tolosan dagoen gerriko beltz kopuruarekin. Zaletasun handia dago”. Adin guztietakoak dira elkarreko partaide diren judokak. Gazteenek bost urte dituzte “eta ez dago amaierarik. Momentu honetan, zaharrenak 40 bat urte ditu”. Judokak adinaz gain (alebinak, infantilak, kadeteak...) pisua kontuan hartuz ere sailkatzen dira, “40 kiloko ume batek 60ko mutil baten kontra aritu behar ez izateko”.

Judoken maila gerrikoek zehazten dute. Guztira hamabi gerriko daude, hurrenkera honetan eskuratzen direnak: zuria, zuri-horia, horia, hori-la-

ranja, laranja, laranja-berdea, berdea, berde-urdina, urdina, urdin-marroia, marroia eta beltza. Gainera, beltzaren barruan 10 dan edo maila ere bereizten dira. “Txuritik marroia, klubak berak ematen ditu gerrikoak, nahi duen bezala. Baina gerriko beltza eskuratzeko, urtean bi proba egiten ditu federazioak. Probaren atal bat konpetiziozkoa da (bost konbatetik lau irabazi behar dira eta puntuazio onarekin). Horrez gain, azterketa tekniko bat ere badago. Biak oso ondo egiten badituzu, gerriko beltza ematen dizute.”

“Kirola egiten hasteko oso aproposa” den kirola da ju-

# taraziz

VENDE ERDIA BETE DUEN TOLOSA JUDO KLUBA



doa. Hori da gaur egun hainbeste gaztetxok taldean izena ematearen arrazoietako bat, Gibelalderen iritzi. “Judoan ikasten dugun guztia, %100ean erabil dezakegu, hau da, indar guztia erabiliz, borroketan ahalegin guztiak eginenez, aurkariari minik eman gabe. Gizakiak borrokatzeko beharra du berez, eta horregatik umeeek oso ondo pasatzen dute horretan. Helduentzat ere oso egokia da”.

Borroka aipatu dugu bai, baina forma eta baloreek garrantzi handia dute judoan, “nahiz eta azken aldian ez diren garai batean bezain zorrotzak arau horiekin”. Tatamira nola sartu eta atera, borroka egin aurreko eta ondorengo agurrak, judogia (judoa egiteko arropa) eta gerrikoa jartzeko modua... beti errespetatzen dituzte, azkenerako “konturatu gabe” egiten dituzten arren. Humiltasuna ere judoken ezaugarrietako bat da: “Kirol honetan, jende onak ere askotan galtzen du. Horregatik,

hoberenek ere ez dute uste onenak direnik”.

Irailean hasten dira denboraldiko entrenamendu eta txapelketak prestatzen. “Gipuzkoako txapelketarekin hasten gara. Finalean sartzen bagara, Euskadikora pasatzen gara. Eta honetako finalera iristen bagara, “Sector norte” delakokan jokatzeko dugu, non, Euskadi, Errioxa, Aragoi eta Nafarroa sartzen diren. Hortik Espainiako finalera pasa gaitezke. Zaila izaten da Espainiakoan garaipenak lortzea, nahiz eta lortu izan ditugun”. Entrenamenduak prestatu eta gauzatzea ez da lan erraza izaten, “gaur egungo gazteen bizimodua” dela eta. Izan ere, hainbat ekintza eta betebeharrak egin behar izaten dituzte: Azterketak, eskolaz kanpoko jarduerak... Ondorioz, judoka bakoitzarekin helburu batzuk finkatzen dituzte, normalean hiru edo lau, eta horren arabera izaten dira entrenamenduak. Gutxienez entrenamenduak. Gutxienez entrenamenduak. Gutxienez entrenamenduak. Gutxienez entrenamenduak.

ten dute, txapelketetan parte hartzen ari direnek berriz, egunero bi orduz aritzen dira jo eta su. Saio hauetan “umeeekin adibidez, koordinazioa, erortzen ikastea, kideekin borrokatzerakoan indar handia noiz egin behar den edo nondik heldu” bezalakoak lantzen dira. “Hamar-hamaika urtetik aurrera, informazio asko eskaintzen zaie judokei fisiko ona, azkartasuna, indarra... eskura ditzaten”.

Elkartearen finantziario iturri nagusia judoek eurek ordaintzen duten dirua da. Hileroko kuota bat ordaintzen dute. Horrez gain, urtero Tolosako garagardo azokan parte hartzen dute, honek ere ekonomikoki “laguntza handia” suposatzen dielarik. Kirol taldeek alkoholdun edari baten inguruan festa antolatzeak herritar batzuegan sortu duen ezinegona dela eta, Oscar Gibelalde dio “diru erreza lortzeko modu bat” besterik ez dela. “Beste kiroletan ere, alkohola, tabakoa... sartuta daude eta

inork ez du ezer esaten”. Bide batez, aipatu beharra dago Tolosa judo elkarteak ez diela erakunde publikoei diru-laguntzarik eskatzen, arduradunek ez dutelako horretarako beharrik ikusten.

## URTE BIKAINA TOLOSA JUDO KLUBARENTZAT

Amaitu berri dugun urtea ona izan dela aipatu digu Oscarrek, nahiz eta berak taldean entrenatzaile gisa daramatzan zortzi urteetan Espainiako txapelketatik dominik eskuratu ez duten lehena izan den. “Jendeak lan asko egin du”, eta horregatik lortu dute Gipuzkoako, Euskadiko eta sektoreko txapeldunak izatea. Senior mailan 90 kg azpikoen mailan dabilen Unai Arcelusek egingo dako lana azpimarratzen du: “Gipuzkoako txapelduna izan da, eta Espainiakoan oso indartsu dabilen judoka bati irabazi zion. Euskadiko txapelketan hirugarren geratu zen, baina epaileak ez zuen bere lana ondo egin, eta haserre atera ginen handik”. 2009a ere ongi hasi dute urteko lehen txapelketa batzuk irabaziz eta taldeko zazpi judoek gerriko beltza eskuratuz. Hala ere, Gibelalde argi utzi nahi du beren helburua “eguneroko lana, egunero entrenamendua eta egunero giro ona mantentzea” dela, eta hori dela 2009rako eskatzen duena, “emaitzekin obsesionatu gabe”.

Amaitzeko, gaztetxoei deialdi bat egiten die Oscar Gibelalde: “Norbaitek indartsu, gogor... borrokatu nahi badu, era beran borrokatzen ari den baten kontra, eta lesionatu gabe, oso kirol aproposa da. Etxe-

# Urtarrilaren 23tik otsailaren 6ra bitarteko

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com) helbidera

## ERAKUSKETAK

### ARANBURU JAUREGIA

»» Otsailaren 14ra arte: Juan Jose Aguireren erakusketa.

### ERROTA HAUR LIBURUTEGIA

»» Urtarrilaren 25era arte: SOS Arrazakeriaren eskutik, Geureak ere badira adingabe horiek erakusketa.

### ITAIE TABERNA

»» Urtarrilaren 31ra arte: Jose Enrique Ceberrioren olio-lanak eta akuarelak ikusgai.

### LANBROA TABERNA

»» Urtarrilak 31: Ana Jesus Ansorenaren artelanak ikusgai.

### ALEGIAKO JUBILATUEN TABERNA

»» Otsailaren 8ra arte: Marce Tenaren begiei buruzko margolanen erakusketa. Zabalik asteartetik igandera.

## Z I N E A

### LEIDOR

»» Urtarrilak 24: Mision en Mocland haurrentzako filma 17:00etan. Un gran dia para ellas 19.30ean. Gomorra 22:30ean.

»» Urtarrilak 25: Mision en Mocland

17:00etan. Un gran dia para ellas 19:30ean. Gomorra 22:00etan.

»» Urtarrilak 26: Gomorra 20:30ean.

»» Urtarrilak 30: La ola 22:30ean.

»» Urtarrilak 31: Una amistad inolvidable filma 17:00etan. El intercambio 19:30ean. La Ola 22:30ean.

»» Otsailak 1: Una amistad inolvidable 17:00etan. El intercambio 19:30ean eta 22:00etan.

»» Otsailak 2: El intercambio 20:30ean.

## ZINE FORUM

### LEIDOR

»» Urtarrilak 29: La soledad del corredor de fondo 19:15ean eta 21:45ean.

## IKUSKIZUNAK

### IBARRAKO KIROLDEGIA

»» Urtarrilak 23: Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen Piratak ikuskizun berria, 18.00etan.



### LEIDOR

»» Urtarrilak 23: Mi primera vez antzez-lana 20:30ean.

## IBARRAKO UZTURPE IKASTOLAREN KULTURASTEA



»» Urtarrilak 30: Alurr dantza taldearen Sua ikuskizuna Belabieta kiroldegian. Ordua: 22:00. Sarrerak salgai, Ikastolan, Zubiaurren, Karlatzen, Denak tabernan, Rakun eta Orbelan.

»» Urtarrilak 31. Haur festa belabieta kiroldegian. Orduetgia: 11:00etatik 13:00etara, eta 15:00etatik 18:00etara. Ondoren txokolatada plazan.

»» Otsailak 2. Nola sustatu irakurzaletasuna etxean. Yolanda Arrietaren hitzaldia 3 eta 8 urte arteko seme-alabak

**hirukide**

gainberri  
Tfnoa: 943 673 948

jesuitinak  
Tfnoa: 943 651 027

eskolapioak  
Tfnoa: 943 670 311

[www.hirukide.org](http://www.hirukide.org)

**KALITATEZKO HEZKUNTZA**

2008

Q

kristau eskola

bai euskarari  
zerbitzua euskaraz



# o hitzorduak

dituzten gurasoentzat, Kultur Etxean.  
Ordua: 18:00.

►►► **Otsailak 3:** 0-3 urteko haurren heziketa estilo berri bat hitzaldia, Montse Meana eta Lourdes Garijo hezitzaileen eskutik, Kultur Etxean. Ordua: 18:00.

►►► **Otsailak 4:** Santa Ageda kantuan ibiliko dira herriko kaleetan zehar 14:00etatik aurrera.

►►► **Otsailak 5:** Drogomenpekotasunaren prebentzioari buruzko hitzaldia Askagintza taldearen eskutik, Kultur Etxean. Ordua: 18:00.

►►► **Otsailak 6:** Emeterio Arrese plazako eraikinaren inaugurazioa. Ordua: 19:00.

►►► **Otsailak 8:** Zeraingo meategietara irteera. Goizeko 9:00etan plazatik irtengo dira.

## M U S I K A

### BONBERENEA

►►► **Urtarrilak 23.** Manent tea Seiren taldeen zuzeneko 22.30ean hasita.



►►► **Urtarrilak 24.** Captain nemo eta Coll Circus taldeak 22:30ean.



# Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

## Ikastaroak

Oinarrizko Autocad	24 ordu	2009-01-26
Hondakinak eta bere trataera	20 ordu	2009-01-26
Harreman pertsonalen kudeaketa (adimen emozionala)	20 ordu	2009-02-02
TIG soldadura posizio horizontalean	50 ordu	2009-02-02
CAD 3D Modelatu eta Planoak (Solid Edge)	30 ordu	2009-02-02

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota bestelako ikastaroen informazioa interesatu izanez gero, jar zaitze harremanetan:

Webgunea: [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com)

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17 -20400 Tolosa  
Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Posta-e: [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com)

## Guardiako farmaziak

### URTARRILA

<b>Ostirala, 23</b> Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
<b>Larunbata, 24</b> Morant Rosalia. Zabalameta, 1, Tolosa
<b>Igandea, 25</b> Olarreaga M (Martin Jose Iraola) Tolosa
<b>Astelehena, 26</b> Tolosa, M <sup>o</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Asteartea, 27</b> Iturrioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Asteazkena, 28</b> Ugarte, M <sup>o</sup> Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Osteguna, 29</b> Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
<b>Ostirala, 30</b> Etxebeste Jesus M <sup>o</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa
<b>Larunbata, 31</b> Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
<b>Igandea, 1</b> Bronte, Cecilia (Korreo, 20) Tolosa
<b>Astelehena, 2</b> Morant Rosalia. Zabalameta, 1, Tolosa
<b>Asteartea, 3</b> Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
<b>Asteazkena, 4</b> Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
<b>Osteguna, 5</b> Olarreaga M (Martin Jose Iraola) Tolosa

## Telefono interesgarriak

<b>Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur</b> Osasun zentroa . . . . .	943 653 212
<b>Alto</b> Medikua . . . . .	943 654 737
<b>Anoeta-Alkiza-Hernalde</b> Medikua . . . . .	943 652 339
<b>Baliarrain</b> Medikua . . . . .	943 889 003 (asteazk.)
<b>Berastegi-Elduain</b> Medikua . . . . .	943 683 361
<b>Bidegoian</b> Medikua . . . . .	943 681 134
<b>Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu</b> Osasun etxea . . . . .	943 672 411
<b>Ikaztegieta</b> Medikua . . . . .	943 653 329
<b>Irura</b> Osasun zentroa . . . . .	943 690 720
<b>Tolosa</b> Anbulatorioa, larrialdiak . . . . .	943 650 931
San Esteban, hitzordua . . . . .	943 006 800
Gernikako Arbola,hitzor . . . . .	943 006 900
Amarozko dispensarioa . . . . .	943 672 637
Asunzion klinika . . . . .	943 675 799
(larrialdiak) . . . . .	943 675 390
San Kosme San Damian geriatrikoa . . . . .	943 672 932
Udaltzaingoa . . . . .	943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi) . . . . .	943 650 016
Ur zerbitzuak (aberiak) . . . . .	639 352 156
Iurreamendi egoitza . . . . .	943 670 325
Larrialdiak, Suhiltzaileak . . . . .	112
DYA . . . . .	943 672 536
Gurutze Gorria . . . . .	943 674 888
. . . . .	943 651 425
Ertzantza . . . . .	943 673 022
Tolosa Gasa . . . . .	943 675 320
<b>Lizartza</b> Medikua . . . . .	943 682 077
<b>Orendain</b> Medikua . . . . .	943 655 595
<b>Orexa</b> Medikua . . . . .	943 682 228

**Vicente Errotuloak**

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura Faxa, 943 694291  
rotulosvicente@Jet.es

**Meriendak, txurroak**

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagire

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

Muxu-  
-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

## LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzeke. **671 44 66 15**
- **Sagardotegirako sukaldari laguntzaile eta zerbitzaria** behar dira. **660 654 317**

## ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldia eta komunarekin. **645 718 536**
- **Ikasle bat, pisu bat konpartitzeko** beste ikasleen bila dabil. 627834993.
- **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

## SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equip 18.000 euro. **629 52 51 50.**
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669.**
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678 923 512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km)** salgai 617 863 669

## HOROSKOPOA

URTARRILAREN 23TIK OTSAILAREN 6RA ARTEKO AURREIKUSPENA



## ARIES

Martxoak 21 - Apirilak 21

Gehiegi kexatzen zara. Bai, egia da ez dela lan finkoa, baina krisi garaiotan ezer baino hobea da, ezta? Gutxiago kexatu eta lan gehiago egin!



## TAURUS

Apirilak 22 - Maiatzak 21

Harrigarria da gaitz guztiei aurre egiteko duzun indarra. Naturak eman dizun indar hori aprobetxatu eta gozatu bizitza! Aspaldiko lagun bat ikusiko duzu berriz.



## GEMINI

Maiatzak 22 - Ekainak 21

Tabernan musean ibiltzeari utzi eta mugitu ipurdia, bestela uda iristen denean bainujantzia lehertuko duzu! Alferrik izango da orduan kexatzea.



## CANCER

Ekainak 22 - Uztailak 22

Bat batean alai sentitzen zara. Ez dakizula zergatik? Ez engainatu zure burua. Ezagutu berri duzun horrek txoratuta zauzka, eta saiatu egin beharko zenuke.



## LEO

Uztailak 23 - Abuztuak 22

Zure egoskorkeriak ez du mugarik. Alferrik dira geroko damuak, aurrez gauzak bi aldiz pentsatzen ez badira. Saiatu zaitetz horretan, ondokoek eskertuko dizute eta.



## VIRGO

Abuztuak 23 - Irailak 22

Beti estresatuta zabilta. Baina hainbeste lan al duzu? Baliteke estresa zuk zeuk sortzea. Lan bera egingo duzu gauzak lasaiago hartuta ere.



## LIBRA

Irailak 23 - Urriak 22

Zure ondoan daudenek ez dakite zer zortea duten. Denera iristen zara kexa txikien ere egin gabe. Zu bezalako engatik balitz, ez legoke krisirik! Segi horrela.



## SCORPIUS

Urriak 23 - Azaroak 22

Hori da hori, hitz egin beharra! Tarteka isilik egoteak mesede egingo dizu. Eta batez ere, mesede egingo die zure inguruan daudenei. Ez zara ohartzen nazkatuta dituzula?



## SAGITTARIUS

Azaroak 23 - Abenduak 21

Lagunen aurrean onartu ez arren, goizero begiratzen zara ispiluan. Azken hilabeteetan zure irudia hobetu duzu. Baina ez ahaztu, norbera bere gorputzarekin gustura egotea da edertasunerako giltza.



## CAPRICORNUS

Abenduak 21 - Urtarrilak 20

Aspaldiko partez, umeak bezala ibili zara elurretan. Ederki gozatu duzu ez? Atera zazu gehiagotan barruan duzun haur txiki hori, ez lotsatu!



## AQUARIUS

Urtarrilak 21 - Otsailak 20

Amets egiten duguna ez da beti betetzen. Batzuetan gauzak guk uste ez bezala iriteten dira. Baina hori onartzea beste erremediorik ez duzu. Zuk nahi duzuna izan ez arren, daukazuna estimatzen ikasi behar duzu.



## PISCIS

Otsailak 21 - martxoak 20

30 urteak gaindituta, zigarroa uztea ezinbestekoa da. Ez zarela gaztetxo bat! Bestela, aurrekoan bezala, ez zula gainetik kendu ezinik ibiliko zara. Saia zaitetz, zure bizitzako esperientzia izan daiteke.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

2-16 urte

bi urteko gela · ludoteka · ikastola



# uzturpe

## herrian hazi eta hezi

matrikulazio epea otsailaren 2tik 13ra  
dei iezaguzu eta bisita antolatuko dugu



Egalde 2, 20400 Ibarra | Tel.: 943 671299 | Faxe: 943675632 | [ibarra@ikastola.net](mailto:ibarra@ikastola.net) | [www.uzturpe.net](http://www.uzturpe.net)

# TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



Telefona: **943651063**  
Webgunea: [www.samaniego-tolosa.com](http://www.samaniego-tolosa.com)  
Posta elektronikoa: [012244aa@hezkuntza.net](mailto:012244aa@hezkuntza.net)

- HAUR HEZKUNTZA (2 URTETIK HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA



Haur txokoa

07:30etik aurrera



Telefona: **943651387**  
Webgunea: [www.orixe.net](http://www.orixe.net)  
Posta elektronikoa: [012980aa@hezkuntza.net](mailto:012980aa@hezkuntza.net)

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA
- LAN HASTAPEN EGOKITUA
- BATXILERGOAK

## D EREDUA-KALITATEZKO IRAKASKUNTZA

**MATRIKULA EPEA:** OTSAILAREN 2tik 13ra



# LASKORAIN IKASTOLA

Izen emate epea: otsailaren 2tik 13ra




## KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA ETA ELEANITZA 0-18 URTE

[www.laskorainikastola.net](http://www.laskorainikastola.net) [tolosa@ikastola.net](mailto:tolosa@ikastola.net) 943 697 127



# IÑAUTERIAK 2009



## Jaiak

Elbarrena industrialdea 72-1 - Telf: 943 888232 - [jaiak@jaiakdenda.com](mailto:jaiak@jaiakdenda.com) - [www.jaiakdenda.com](http://www.jaiakdenda.com) ZALDIBIA  
Plaza Majori 12 (beste dendatik km 1-era Zaldibiako errepidean) - Telf: 943 888324 - ORDIZIA